

**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIA,
[REDACTED] JAUNAK EUSKADIKO HERRI KIROL
FEDERAZIOKO DIZIPLINA-EPAILE BAKARRAK 2016KO MARTXOAREN
28AN EMANDAKO EBAZPENAREN KONTRA AURKEZTUTAKO
ERREKURTSOA ZATI BATEAN ONESTEKOA.**

Espediente-zenbakia: 7/2016

AURREKARIAK

Lehena.- 2016ko apirilaren 13an [REDACTED] jaunak errekurtsoa aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzan, Euskadiko Herri Kirol Federazioko diziplina-epaile bakarrak 2016ko martxoaren 28an emandako ebazpenaren kontra. Ebazpen horren bidez, federazio horren Diziplinako Araudiaren 7.2.b) artikuluan oso larritzat jotzen den arau-haustea egotzi zitzaion eta sei hilabeterako federazioaren lizentzia kentzeko zigorra ezarri zitzaion.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hau izapidetzea, Euskadiko Herri Kirol Federazioari espedientea eskatzea eta alegazioak aurkezteko eta froga-eginbide egokiak proposatzeko aukera ematea erabaki zuen.

Hirugarrena.- 2016ko maiatzaren 12an Euskadiko Herri Kirol Federazioak bidalitako espedientea jaso zen eta 2016ko maiatzaren 17an kirol federazio horretako diziplina-epaile bakarrak egindako alegazioen idatzia jaso zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurso hau aztertzeko eskumena, horixe xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 106.2.c) artikuluan; urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuak, kirol-diziplinari buruzko Arautegia ezartzen duenak, 29. artikuluan; eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan. Azken horrek organo horri egozten dio honako egiteko hau: *“Kirol-diziplinako ahalmena duten kirol organo titularren erabakien aurka jarritako errekursoak aztertzea eta ebaztea”*.

Bigarrena.- Aurkaratu den zigorra eragin zuten egitateak Euskadiko goma gaineko sokatira txapelketan gertatu ziren, Erandion, 2016ko otsailaren 13an.

Egun horretako txapelketaren aktan honako hau bildu zen:

“Abadiño-Sokarri azkeneko tiradan, [REDACTED] eta [REDACTED], [REDACTED] eta [REDACTED] tiratzaileak etorri zitzaizkidan, niri, [REDACTED] erdiko epaileari, honelakoak esanez: faltsua zara, kaka zure amari, arrastorik ere ez dakizu eta beti berdina egiten duzu. Tiratzaile horiek honako fitxa-zenbakiak dituzte: 2.322; 5.045; 2.771 y 2.757”.

Euskadiko Herri Kirol Federazioko diziplina-epaile bakarrak gertatutakoa eta diziplinaren aldetik izan zitzakeen ondorioak aztertu zituen 2016ko otsailaren 17ko probidentziaren bitartez hasitako ezohiko prozeduraren esparruan, aipatutako kirol federazioaren Diziplinako Araudian xedatutakoa kontuan hartuta.

Azterketa horren ostean, 2016ko martxoaren 28an emandako ebazpenaren bidez, “[REDACTED] jaunari sei hilabeterako federazioaren lizentzia kentzeko zigorra ezartzea” erabaki zuen, "arau-hauste larri bat egin izanagatik", haren jokabideak Diziplinako Araudiaren 7.2.b)

artikuluak oso larritzat jotzen duen arau-hauste bat zekarrelako. Artikulu horrek honako hau dio hitzez hitz:

"Arau-hauste oso larritzat hartuko dira honako hauek:

(...)

b) epaileak, zuzendariak, kirolariak, ikusleak eta oro har edozein pertsona mehatxatzea, hertsatzea edo benetan iraintzea kirol proba edo lehiaketa batean".

Hirugarrena.- [REDACTED] kirolaria ez dago ados zigor horrekin eta nagusiki zigorra indargabetzeko eskatu du bere errekurtsioan, bere idatzian emandako arrazoiengatik. Horrez gain, zigortutako egitateak arau-hauste arintzat jotzeko eta Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziplinako Araudiaren 21.2.d) artikuluan ageri den baldintza aringarria aplikatzeko eskatu du.

Era berean, ezarritako zigorra kautelaz indargabetzeko eskatu du errekurtsioa ebatzi arte. Kontuan hartuta 2016ko apirilaren 30ean Euskadiko sokatira txapelketa hasten dela lurreko modalitatean, zigorra mantenduz gero ezingo dutela parte hartu dio.

Kontuaren funtsari dagokionez, errekurtsio-egileak ondorengo zerrendan laburki bildu diren arrazoiak eman ditu errekurtsioan azaldutako asmoa defendatzeko:

1) Bere jokabidea desegokia izan zela aitortzen duen arren, ez dago ados diziiplina-organoak egitateen inguruan egindako kalifikazioarekin eta egitate horiek arau-hauste arintzat jo behar zirela uste du, Diziplinako Araudiaren 7.3.a) artikuluko sailkapenari jarraituz. Artikulu horren arabera, honako hauek lirateke arau-hauste arinak: *"epaileei, zuzendariei, kirolariei, ikusleei eta oro har edozein pertsonari egindako irain edo errespetu falta txikiak kirol proba edo lehiaketa batean".*

Zentzu horretan, "irain arinen edo errespetu falten" eta "irain larrien" arteko bereizketa ez dela argia argudiatu du eta diziiplina-organoak, egitateak sailkatzeko orduan diskrezionaltasun handia duenak, ez dituela egitateak ondo baloratu. Izan ere, errekurtsio-egilearen ustez, bere ahozko adierazpenak "ez ziren iraintzeko izan" eta haserrea erakusteko eta pilatutako tentsioa askatzeko era baino ez zela izan adierazi du.

2) Bigarrenik, diziiplina-organoak egitate arau-hausleak sailkatzeko duen diskrezionaltasun handi horrek diskrezio-egintza gehiago justifikatzera edo arrazoitzera behartzen duela argudiatu du, are gehiago egitate horiek interesdunari kalte egiten dioten ondoreak izan baditzake.

Zentzu horretan, errekurtsio-egilearen aburuz, IV. zuzenbideko oinarrian emandako arrazoiak ez dira nahikoa egitateak arau-hauste larritzat jotzeko (zuzenbideko oinarri horretan "egindako adierazpenek gizartean duten kontsiderazioa kontuan hartuta, irain larritzat jo behar direla" baieztatu da) eta arrazoiak ematen direnean defentsarako eskubidea eta Konstituzioaren 24.2 artikuluan ageri den benetako babes judiziala izateko eskubidea bermatzen direnez, legez baliogabea den kasu baten aurrean gaudela ondorioztatu du, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 62.1.a) artikuluan "Konstituzioaren babespean egon daitezkeen eskubide eta askatasunak urratzen dituzten" administrazio-egintzetarako aurreikusitakoa.

3) Hirugarren argumentua litzateke errekurtsio-egilearen kasuan diziiplina-epaile bakarrak ez duela aplikatzen Diziplinako Araudiaren 21.2.d) artikuluan ageri den baldintza aringarria ("*alde zurretik zigorrik ezarri ez izana*"), bai, ordea, egitate berdinegatik zigortutako beste kirolari batzuen kasuan. Hain zuzen ere, arau-hauste arin batengatik zigortu zuten honen aurretik, 2014ko otsailaren 16an emandako ebazpenaren bidez.

Errekurtsio-egilea ez dago ados jokabide horrekin eta bere ustez, baldintza aringarri hori aplikatu behar zen, Diziplinako Araudiak aurrekariak

ezeztatzeko ezarritako epea (6 hilabete) igaro zelako -errekurtsoaren edukia irakurrita interesdunak aurrekariak ezeztatzeko eskatu ez zuela ondoriozta badaiteke ere, eta beraz, *de facto* gertatu ez bazen ere-. Errekurtso-egileak, bere iritzia funtsatzeko, Zigor Kodearen 136.5 artikuluan xedatutakoari egin dio erreferentzia: *"Aurrekariak ezerezteko artikulua honetan ezartzen diren betekizunak gertatzen direnean, ezerezte, ordea, gertatu ez bada, epaile edo auzitegiak aurrekariok ezerezteko aginduko du, inguruabar horiek egiaztatu eta gero, eta ez ditu aurrekari horiek kontuan hartuko"*.

4) Errekurtso-egilearen ustez, ezarri zaion zigorra, federazioaren lizentzia sei hilabeterako kentzekoa, gehiegizkoa da gertatutakoa (bere aburuz arau-hauste arintzat jo behar zena) eta gainerako kirolariei ezarritako zigorrak (Diziplinako Araudiaren 21.2.d) artikuluan ageri den baldintza aringarria aplikatu zitzaizen gainerako kirolariei hilabete eta egun baterako kendu zitzaizen federazioaren lizentzia) kontuan hartzen badira.

5) Azkenik, Diziplinako Araudian akats bat dagoela dio. Izan ere, egitateek jokoaren edo lehiaketaren arauak hautsi dituztela adierazi den arren (7.2.b) artikulua), horiek izapidetzeko ezohiko prozedura aplikatu da eta kirol-arloko arau orokorrak hausten diren kasuetarako zigor bat ezarri da (15.2.a) artikulua), baina horrelako arau-haustek izapidetzeko ohiko prozedura aplikatu behar da.

Kirol-diziplinari buruzko arautegia onesten duen urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuaren 25.1 artikuluan ezarritakoan oinarrituz, errekurtso-egilearen arabera, kasu honetan ezohiko prozedura aplikatzea ez litzateke justifikatuta egongo -lehentasunaren eta sumarietatearen printzipioetan oinarritutako prozedura da-, diziplinazko prozedura hasi zen datan goma gaineko modalitateko sokatira denboraldia bukatuta zegoelako eta beraz, ez zelako beharrezkoa diziplina-organoei berehala esku hartzea.

Diziplinako Araudiak ohiko prozeduraren kasurako aurreikusitako izapideek eta epeek zigortutako pertsonari defentsarako berme gehiago eskaintzen diotenez eta adierazi den arrazoia dela-eta berme hori errespetatu

ez denez, babesgabetasun egoeran egon da, are gehiago horren zigor larria ezarri zaiola kontuan hartuta.

Laugarrena.- Errekurtsoa aurkezteko izandako arrazoiak aztertzeke, azaldu berri ditugunak, errekurtsio-egileak bere jokabidea Diziplinako Araudiaren 7.2.b) artikulua larriztat jotzen duen arau-hauste modura eta beraz, behar ez bezala sailkatu izanagatik aurkeztutako alegazioak eta zigortutako egitateak aipatutako Diziplinako Araudiaren 7.2.b) artikulua arintzat jotzen duen arau-hauste modura sailkatzeko egindako eskaera aztertuko ditugu lehenbizi. Horrez gain, arau-haustea larriztat jotzeko emandako arrazoiak nahikoa ez direlako ustea aztertuko dugu, horrek babesgabetasuna eragiten diola baitio, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 62.1.a) artikuluan ageri den legezko balio gabetasunean eroriz.

Lehiaketaren aktan jasotako egitateak, zigorra ezartzea eragin dutenak, bakezkoak dira eta errekurtsio-egileak ez ditu eztabaidatu. Gainera, bere jokabidea desegokia izan zela aitortu du, egitateen eta ezarritako zigorraren sailkapenarekin eta kalifikazioarekin ados ez badago ere, zigorra gehiegizkoa iruditzen baitaio.

Errekurtsoan jaso den bezala, diziiplina-epaile bakarraren ustez, kirolariak lehiaketako epaileetako bati egindako irainak larriak dira benetan. Izan ere, aurkaratu den ebazpeneko IV. zuzenbideko oinarrian bildu den legez, *egindako adierazpenek gizartean duten kontsiderazioa kontuan hartuta, irain larriztat jo behar dira*.

Kide anitzeko organo honek diziiplina-epaile bakarraren irizpidearekin bat egin baino ezin du egin, errekurtsio-egileak eta beste kirolari batzuek lehiaketako momentu garrantzitsu batean (Euskadiko sokatira txapeldunaren titulua lehian zenean, gomazko modalitatean eta 560 kg-ko kategorian) erantzukizun handiko lana egiten ari den pertsona batengana jotzean erabilitako hitzek errespetu falta erakusten dutelako eta diziiplina-organok hautemandako arau-hausterik larriena direlako.

Errekurtsoan adierazitakoa ez bezala, epaileari egindako irainak, bere senideei egindakoak barne, badaukate errekurtsio-egileak ukatu nahi duen "irain izaera" eta ezin dira kirolarien haserrea erakusteko modu soiltzat jo, epaileak momentu jakin batean hartutako erabakiengatik. Momentu zehatz horretan errespetuz jokatu behar da epaileek egiten duten lana zaila delako, batez ere epailearen jardunaz kexatzeko beste bide batzuk daudenean, hark hartutako erabakiak okerrak edo desegokiak direla uste bada.

Horrenbestez, diziplina-epaile bakarrak adierazitakoa egokia da, egindako adierazpenek gizartean duten kontsiderazioa kontuan hartuta, irain larritzat jo behar direla dioenean. Arrazoi hori laburra bada ere, hartutako erabakia justifikatzen du eta ez dakarkio babesgabetasunik errekurtsioa aurkeztu duen kirolariari.

Diziplina-epaile bakarrak emandako ebazpena ustez behar beste ez arrazoituta izanari dagokionez, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 54. artikulua honako hau dioela gogoratu beharra dago: egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur azaltzen badira, egitatea eta aplikatu daitezkeen legeria barne hartuta, administrazio-organoak aurkaratu den ebazpena emateko zein prozesu intelektibo jarraitu duen jakin ahal izateko, behar beste arrazoituta egongo da ebazpena. Aztertzen ari garen kasuan behar beste betetzen da hori.

Era berean, jurisprudentzia-doktrinaren arabera, ez arrazoitzeko edo behar beste ez arrazoitzeko akats formalak egintza baliogabetuko duela dio baina interesdunari babesgabetasuna eragiten dionean bakarrik. Kasu honetan, errekurtsioaren edukia aztertuta, argi dago errekurtsio-egileak badakiela zigorra zergatik ezarri zaion eta Administrazioak zein legeria aplikatu duen. Beraz, ez da inongo babesgabetasunik eragin eta ondorioz, ez da kontuan hartu behar errekurtsioa aurkezteko izandako arrazoi hori.

Bosgarrena.- Bigarrenik -egia esan errekurtsioa azken alegazioa bada ere-, egoki deritzogu errekurtsio-egileak diziplina-espedita izapidetzeko

aplikatutako prozedura mota (ezohiko prozedura) hautatzeko orduan egindako hutsegitearen inguruan egindako alegazioa aztertzeari. Egitateak jokoaren edo lehiaketaren arau-hauste modura kalifikatu izanak (7.2.b) artikulua) eragin omen du huts hori, baina kirol-arloko arau orokorrak hausten diren kasuetarako aurreikusitako zigor bat ezarri omen da (15.2.a) artikulua) eta azken horiek izapidetzeko ohiko prozedura aplikatu behar omen da.

Errekurtso-egileak ezohiko prozedura aplikatzea akatsa izan dela uste du, espedientea izapidetzeko ohiko prozedura aplikatu behar zelakoan. Azken prozedura horrek defentsarako berme handiagoa eskaintzen dio zigortutako pertsonari eta arrazoi hori dela eta, ezohiko prozedura aplikatu izanak babesgabetasuna ekarri diola baietsi du.

Alegazio horri erantzuteko, Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziplinako Araudiaren edukiari erreparatu behar diogu, I. tituluari, hain zuzen ere. Bertan, 26.3 artikulua honako hau dio: "ezohiko prozedura lehentasunaren eta sumarietatearen printzipioetan oinarritzen da eta jokoaren edo lehiaketaren arauak hausten direnean aplikatu ahalko da". Arau-hauste mota horren barruan sartuko lirateke Diziplinako Araudiaren 7. artikuluan bildutako guztiak. Horrenbestez, ez da inongo akatsik egon diziplina-espedientea izapidetzeko aplikatu beharreko prozedura aukeratzeko orduan.

Nolanahi ere, errekurtsio-egilea zuzen dago aplikatu den zigor mota (15.2.a) artikulua) kirol-arloko arau orokorrak hausten diren kasuetan aplikatzen dela eta arau-hauste mota horretarako Diziplinako Araudiak espedienteak izapidetzeko ohiko prozedura aplikatu behar dela xedatzen duela dioenean.

Gauza da aurkaratu den ebazpenean okerreko aipamena egiten zaiola aplikatu den zigor motari, onetsitako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatutako Diziplinako Araudiaren testuari erreparatzen badiogu gutxienez. Zigorra ez da izan behar 15.2.a) artikuluan ageri dena, 8.2.b) artikuluan ageri dena baizik, jokoaren arauak hausten direneko arau-hauste larrietarako dena. Artikulu horrek aurrekoaren eduki bera du.

Beste modu batera esanda, arau-hauste mota bien kasuan aurreikusten da "*lizentzia kentzea, hilabete baino gehiagorako eta gehienez urtebeterako*", arau-hauste larrien kasuan.

Edonola ere, formaren aldetik egindako akatsa baino ez da eta ez dio eragiten zigorra ezartzeko erabakia hartzeko kontuan hartu diren egitateen izaerari, ezta ezarritako zigorraren edukiari edo mailari ere. Zigor horrek ez dio inongo babesgabetasunik eragiten interesdunari eta ez du birtualtasun deuseztatzailerik.

Seigarrena.- Azkenik, errekurso-egilearen kasuan Diziplinako Araudiaren 21.2.d) artikuluan ageri den baldintza aringarria ("*aldez aurretik zigorrik ezarri ez izana*") aplikatu ez izanaren inguruko alegazioak aztertuko ditugu alde batetik, denak batera. Baldintza aringarri hori pareko egitateengatik zigortu diren beste kirolari batzuei aplikatu zaie baina kasu honetan, errekurso-egileari zigorra ezarri zitzaion alde aurretik, 2014ko otsailaren 16an emandako ebazpenaren bitartez, arau-hauste arin bat egin baitzuen. Bestetik, ezarritako zigorrak proportzionaltasunaren printzipioa urratzearen edo neurritz kanpoko izaitearen inguruan egindako alegazioa aztertuko dugu.

Lehenengo ikuspuntutik, Diziplinako Araudiaren 21.2.d) artikuluan ageri den baldintza aringarria aplikatu behar zitzaiola uste du XXXXXXXXXX jaunak, Araudi horretan aurrekariak ezeztatzeko aurreikusitako epea (sei hilabete) igaro zelako, horretarako Zigor Kodearen 136.5 artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta: "*Aurrekariak ezerezteko artikulua honetan ezartzen diren betekizunak gertatzen direnean, ezerezteka, ordea, gertatu ez bada, epaile edo auzitegiak aurrekariok ezerezteko aginduko du, inguruabar horiek egiaztatu eta gero, eta ez ditu aurrekari horiek kontuan hartuko*".

Aurrekariak "birgaitzeari" eta ezeztatzeari dagokienez, Diziplinako Araudiaren 20. artikulua honako hau dio:

"1.- Zigortuek birgaitzeko eskatu ahalko dute eta horrela aurrekariak ezeztatuko zaizkie jarraian adierazitako epeen buruan, zigorra betetzen den datatik kontatzen hasita:

- a) Sei hilabetera, zigorra arau-hauste arin baten ondorioz ezarri bazaie.*
- b) Bi urtera, zigorra arau-hauste larri baten ondorioz ezarri bazaie.*
- c) Lau urtera, zigorra arau-hauste oso larri baten ondorioz ezarri bazaie.*

Zigorra ezarri zuen organo berari eskatu beharko zaio birgaitzeko eta hutsegitea auzipetzeko eta zigortzeko erabilitako prozedura baliatuko da, baliabide berberekin.

2.- Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Zuzendaritza Batzarrak zigorra barkatzea erabaki ahalko du, interesdunak hori eskatu ondoren. Horretarako, derrigorrezkoa izango da Diziiplina Batzordeak zigorra barkatzearen aldeko txostena egitea".

Gai honen inguruko informazio osoa izateko, 2014ko otsailaren 16an emandako ebazpenaren bidez, [REDACTED] jaunari federazioaren lizentzia hogeit egunerako kentzeko zigorra ezarri zitzaiola adierazi beharra dago, Diziplinako Araudiaren 1.3.a) artikulua arintzat jotzen duen arau-hauste batengatik, hain zuzen ere, epaile bati egindako irain txikiengatik eta errespetu faltagatik. Ez da egiaztatu edo behintzat ez da bidali zaigun dokumentazioan ageri kirolariak birgaitzeko eta ondorioz aurrekariak ezeztatzeko eskatu duenik Diziplinako Araudiaren 20. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Egia da Zigor Kodearen 136.5 artikulua honako hau dioela: *"Aurrekariak ezerezteko artikulua honetan ezartzen diren betekizunak gertatzen direnean, ezerezteka, ordea, gertatu ez bada, epaile edo auzitegiak aurrekariok ezerezteko aginduko du, inguruabar horiek egiaztatu eta gero, eta ez ditu aurrekari horiek kontuan hartuko".* Era berean, egia da zuzenbide penalaren printzipioek administrazioko zehapen-eskubideari eragiten diotela, diziiplina-eskubidea barne hartuta, antzeko izaera baitu. Printzipio horien baitan daude legezkotasunaren, tipikotasunaren, "non bis in idem" delakoaren,

proportzionaltasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak eta horietatik abiatuz eratzen dira zuzenbide penalerako eta zehapen-zuzenbiderako berdinak diren instituzio batzuk. Tartean legoke aurrekariak -penalak zein zehapenekoak- ezeztatzeko institutua ere (gaur egun indarrean dagoen Zigor Kodearen aurretik zeudenetan "birgaitzea" izenez ezagutzen zen, federazioaren Diziplinako Arautegian bezalaxe).

Nolanahi ere, zigor arloko doktrinari eta jurisprudentziari erreparatuz gero -horien printzipioetan administrazioko zehapen-zuzenbideari buruzko doktrina eta jurisprudentzia bildu dira-, aurrekari penalak ezeztatzeak oinarrizko bi funtzio dituela egiaztatuko dugu: alde batetik, zigorraren berri emateko publizitatea ezabatzea eta bestetik, berrerortzeko inguruabar astungarria aintzat hartzea ekiditea, aurrekariak ezeztatu ondoren edo epaileak hori erabakitzeko baldintzak betetzen direnean, Zigor Kodearen 136.5 artikulua ezartzen duen legez.

Hala ere, errekurso-egileak ez du bi funtzio edo xede horietako bat ere lortu nahi, guztiz desberdina den beste bat baizik: baldintza aringarri jakin bat aplikatzea, alde aurretik zigorrik ezarri ez izanagatik. Kide anitzeko organo honen ustez, funtzio edo xede hori birgaitzeak eta ondorioz Diziplinako Araudiaren 20. artikuluan aurreikusi bezala aurrekariak ezesteak izan behar dituen ondoreetatik kanpo dago.

Arrazoi hori dela bide, diziplina-epaile bakarrak [REDACTED] jaunari aipatutako baldintza aringarria ez aplikatzeko hartutako erabakia zuzenbidera egokitzen dela iruditzen zaigu –azaldutako guztiarekin batera, ez da berrerortzeko inguruabar astungarria antzeman ezta ere-, eta bestalde, alde aurretik zigorrik ezarri ez zaien gainerako kirolariei aplikatzekoa ere bai, Diziplinako Araudiaren 21.2.d) artikuluan ageri den baldintza betetzen zutelako.

Nolanahi ere, kirolariari ezarritako zigorra proportzionaltasunaren printzipioarekin bat datorren edo ez zehazteko beste balorazio bat egin beharra dago eta kasu honetan bat gatoz errekurso-egilearekin, federazioaren lizentzia

sei hilabeterako kentzeko zigorra proportzioduna ez dela dioenean, errekurtsio-egileak eskatu bezala egitatei (irain larriak direla esan badugu ere, haien larritasun maila neurtu beharko da) eta kasuan nahastutako gainerako kirolariei ezarritako zigorrekin erreparatzen badiegu (kirolari horiei Diziplinako Araudiaren 21.2.d) artikuluan ageri den baldintza aringarria aplikatu zitzaizen eta federazioaren lizentzia hilabete eta egun baterako kentzeko zigorra ezarri zitzaizen).

Proportzionaltasunaren printzipioa aplikatzeko, kasu bakoitzean gertatutakoa neurtu behar da, egozten diren egitateen eta eska daitekeen erantzukizunaren arteko beharrezko proportzionaltasuna lortzeko.

Neurketa horretan diskrezionaltasun-marjina dago diziiplina-organoentzat. Horiek arauak kasu bakoitzerako ezartzen dituen gutxienezko eta gehienezko mugak errespetatuz aplikatu behar dute zigorra eta kasu honetan lizentzia hilabeterako ken daiteke gutxienez, eta urtebeterako gehienez.

Gertatutakoa eta baldintza guztiak aztertu ondoren, hau da, irainen izaera eta edukia, arau-haustea arintzen edo larriagotzen duten baldintzak ez egotea -behin kirolaria epaile bati egindako irain txikiengatik zigortu zutela kontuan hartuta ere- eta jokabide arau-haustea bera izan zuten gainerako kirolariei ezarritako zigorrak (horiei zigor txikiagoa ezarri zaie, Diziplinako Araudiaren 21.2.d) artikuluan ageri den baldintza aringarria aplikatu zaielako), kide anitzeko organo honen aburuz egokiagoa eta neurritzekoagoa da [REDACTED] jaunari federazioaren lizentzia hiru hilabeterako kentzeko zigorra ezartzea, sei hilabeterako kendu ordez, Euskadiko Herri Kirol Federazioko diziiplina-epaile bakarrak erabaki zuen bezala.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

ERABAKI DU

██████████ jaunak Euskadiko Herri Kirol Federazioko diziplina-epaile bakarrak 2016ko martxoaren 28an emandako ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtsoa zati batean onestea. Hortaz, zati batean indargabetuko dugu ebazpen hori, honako hau aitortuz:

1.- ██████████ kirolariari hiru hilabeterako federazioaren lizentzia kentzeko zigorra ezartzea erabaki da.

2.- Behin errekurtsuan planteatu diren funtsezko gaiak ebatzita eta ebazpen hau betearazlea dela kontuan hartuta, ezingo da errekurtsuan zigorra indargabetzeko eskatzen den kautelazko neurriaren inguruko erabakirik hartu.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka aukerako berraztertzeke errekurtsoa aurkeztu ahal izango du interesdunak Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango du Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurtsio-egileak nahi badu bere helbidearen arabera dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 18a

Jose Luis Aguirre Arratibel

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA